



Kide agurgarriak

Gure lanbidea suspertzeko eta azalarazteko urteko lehen hilabete hauetan lanean jarraitu dugu.

Aurtengo lan planan azaldutako helburuak, Batzar Nagusian aurkeztuak, betetzeko ahalegin guztiak egiten ari gara.

Era berean, Gizarte Hezkuntza VII.Kongresua prestatzeko azken urratsak ematen ari gara, eta hara Gobernuko Batzordeko kideak Ekargora ordezkatzera bertaratuko dira.

Gure lanbidea gero eta haundiago egiten ari diren elkargokide guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu.

Gobernu Batzordea

GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN KONTSEILU NAGUSIA



2016 Sevilla 21, 22 y 23 Abril

¡A MÁS EDUCACIÓN
SOCIAL
MÁS CIUDADANÍA!

Apirilaren 21etik 23ra Sevillan egingo den Gizarte Hezkuntza VII. Kongresuaren antolaketa aurrera darrai.

Elkargoren bitartez dagoeneko 33 lagun izena eman dute. Hiru elkargokide gehiago Kongresurako lan egiten dute. Beste batzuk bigarren txandan izena eman dute.

Oraindik Elkargoaren bitartez taldeko izen-ematea merkeago egin ahal da. **Elkargoarekin harremanetan jarri** 944 160 397 edo ceespv@ceespv.org taldeko izen-ematea edo Promoción Amiga egiteko.

[VII Kongresuko Programa](#) gaurkotua ikusi ahal duzue.

GHEE-CESPVREN BERRIAK**ELKARGOKO IRAUNKOR BATZORDEA**

Batzorde hau Elkargoko Gobernuko Batzordearen ordezkoa da eta otsailaren 11n elkartu zen Batzar Nagusian auzeratzeko ziren txostenak onartzeko.

ELKARGOKO OHIKO BATZAR NAGUSIA.

Aurten Elkargoko urteko Batzar Nagusia martxoaren 12an, larunbatan, Vitoria-Gasteizen burutu genuen. Hara hamalau elkargokide bertaratu ginen eta beste zazpi elkargokideen eskuordetutako botoak eraman zituzten.

Elkargoak ahalegin handiagoak egin behar dituen eremuetan eztabaidatu zen, gehien bat prestakuntza ekintzari dagokion.

DEONTOLOGIA BATZORDEA

Urtarrilaren 19an eta otsailaren 27an batzartu dira.

Batzorde honek Gizarte Hezkuntzako VII.Kontresuan Deontologia II. Topaketak garatzeko lan egiten egon da, baita Deontologia Kodearen egokitzapenean eta Gizarte eskuhartze lanean ari diren erakundeko profesionalei aholku eta prestaketa jarduerak, eta Gizarte Hezkuntzako ikasleei zuzendutakoak ere, antolatzen.

GIPUZKOAKO DELEGARITZA

2008ko EAEko Gizarte Zerbitzuetako Legea eta zehatzez Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren Dekretoaren gainean Gipuzkoako Delegaritza jarnualdi bat, maiatzan egingo dena, diseinatzen eta garatzen ari da arauak ondo ezagutzeko asmoz; baita eszenatoki berrian gizarte hezitzaile lanbide figura non konkatzen da ikusteko.

KANPOKO JARDUERAK**RADIO EUSKADIN ELKARRIZKETA**

Urriaren 3an igandean Elkargoko kide batek telefonoz egindako elkarrizketa batean, goizeko irratsaioan, jaiak eta gehiegikeriak gaiari buruz hitz egin zuten. Elkargokide irizpidea gizarte komunikazio medietan sarritan uztartzen den gazteak eta neurrigabekeria era absolutoan haustea izan zen eta, kasu gehienetan, adinari lotutako jarrera experimentalak direla nabarmentzea.

IKERKETA PROIEKTUA

“Redes de innovación para la inclusión educativa y social: infancia en contextos vulnerables, servicios socioeducativos y familias” proiektua MIMECO 2015eko deialdian hautatua izan da. UPV/EHUko Gizarte Hezkuntzako Graduak irakasleak antolatuta. Elkargoak proiektuarekiko sostengua eman eta interesa agertu du.

VII. ADIKZIO PLANA WOCA CAFÉ

Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariak aurkeztutako Adikzio VII.Planaren gaineko eremu eta ekintzen hildoei buruzko adikzio alorretako erakundearen ordezkarien iritzia jasotzeko martxoaren 3ko batzarrera gure Elkargoko kidea bertaratu zen. Jardunaldia Word-café metodologia erabiliz egin zen.

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

SEXU GAIZKILEEN ERREGISTRO NAGUSIA

Real de Decreto 1110/2015, de 11 de diciembre 2015 que regula el Registro Central de Delincuentes Sexuales indarrean jarriko da 2016ko martxoaren 1ean eta adingabeekin lan egiten duten profesionali egiten die erreferentzi; beraz, gizarte hezitzaile askori eragiten dio. Gauzak horrela, profesionalak erregistro horrek igorritako ezezko egiaztapena (sexu deliturik ez dutela adierazten duena) aurkeztu beharra dute.

Aipatutako araudi horretan dioenez -zehatzago esateko 9. artikuluan (irakur dezazuen gomendatzen dizuegu)-, erregistro horretan inskribatutako datuen egiaztapena hezitzaileak eskatu ahal izango du erakunde kontratugileari aurkezteko, baina erakundeak berak ere eskatu ahalko du interesatuak honi berariazko baimena ematen badio.

Justizi Ministerioiko Lurralde Kudeatzaileak izango dira oraingoz erreferentziazko erakundeak eta Justizi Ministerioak hemen erantsi dizkizuegun berariazko azalpen tramitazioak eman ditu (erakundeentzako **taldekako eskabiderako** tramitea nabarmendu, bereziki). Informazio gisa esan, Euskadin Lurralde Kudeatzaileza Bilboko Elkano kalean, 9 zenbakian, 7. solairuan dagoela. 944245418 telefono zenbakia.

Adingabeekin lan egiten duten pertsonentzako zigor-aurrekarien egiaztagiria lortzeko lana arintzeko, honako prozedura hauek gaitu dira, erakunde eskatzailearen eta herritarraren artean dagoen harremanaren arabera.

Administrazio Publiko batekin lan harreman baten arloan lanean dabiltzan pertsonak ez daukate pertsonalki eta bakarka eskatu beharrik, nahikoa izango da lanean dabiltzaneko administrazioari euren zigor-informaziora sartzeko baimena ematea. Horretarako, Hazienda eta Administrazio Publikoen Ministerioak kudeatzen duen Datu Bitartekotzarako Plataforma erabili beharko da.

Gaur egun adingabeekin lan egiten duen enpresa edo erakunde batekin kontratu bat indarrean duten pertsonak beren erakundeko arduradun bati baimena eman beharko diote enpresa horretako langileen agiri guztiak taldeka tramitatzeko.

Zigor aurrekarien egiaztagiria eskatzeko taldekako tramitazio prozedura hori honako honetan datza: eskabide bakarra egiten da eta Hiritarrari Arreta emateko Bulego Zentralera edo Justiziako Lurralde Kudeatzailetzara bidaltzen da.

Dagoeneko adingabeekin lan egiten duten herritarrek edo adingabeekin lan egiten duen enpresa batekin kontratua sinatzeko egiaztagiria behar dutenek ere pertsonalki eska dezakete horretarako gaituta dagoen edozein bide erabiliz: bertaratuta, postaz edo internetez, eta eskabidearen "xede" jartzen duen lekuan **Adingabeekin lan egiteko kontratu berria** jarri beharko dute.


Elkargokideek Elkargoko Zerbitzu Juridikoan egin dezakete kontsulta edozein argibide behar izanez gero.

INTERESGARRIKOAK



Lillo, J., [Laboratorio. Prevención de la violencia de género en la adolescencia. Preguntas, juegos y actividades.](#) Pamplona, Gobierno de Navarra, 2015, 72 p.

Resumen: os últimos estudios y datos sobre la violencia contra las mujeres, señalan que están resurgiendo en la población adolescente estereotipos machistas, y normalizándose entre ellos y ellas actitudes y conductas que respondían a modelos amorosos basados en la posesión y en los celos, más que en modelos igualitarios. Pero no solo esto, sino que también se percibe la necesidad de que, tanto las mujeres como los hombres jóvenes, aprendan a rechazar actitudes de posesión, dominación y control que dan lugar a relaciones desiguales de poder y a la violencia machista, y que vivan las relaciones afectivas en libertad y en igualdad.



Bullying : una falsa salida para los adolescentes / José Ramón Ubieta (ed.) ; Ramon Almirall...[et al.] ; prólogo de Joan Subirats Barcelona : NED ediciones, cop. 2016
Ediciones NED.

En este libro los autores abordan el tema del del bullying : que és , como se produce, posibles respuestas y propuestas....



[RES número 22 Educación Social en Centros Penitenciarios](#)


En pie de pagina de la portada hay una caja con la leyenda **email@aquí** para que puedas incluir tu email y mantenerte informado de las novedades de la revista.



[La Educación social ante los objetivos del Milenio y sus procesos de desarrollo](#) J.A.Caride Fund Pere Tarrés. REVISTA DE EDUCACION SOCIAL Nº61. 2015. pp 11-23



[Abordando del maltrato entre iguales desde el ámbito no formal.](#) Observatorio del Tercer Sector de Bizkaia. 2015.107pp.



[Mapa de recursos para intervenir en caso de Bullying en la CAPV.](#) Observatorio del Tercer Sector de Bizkaia

URRENGO BOLETINETAN SARTZEKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUN ceespv@ceespv.org RA BIDALI AHAL DITUZUE. ERA BEREAN, ZUEN INTERESEKOA DEN EDOZEIN ESPARRUTAN PARTE HARTZEKO GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZTE.